





# Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak

## Tokiko Bilduma: herri bilketa eta ikus-entzunezko ondarea

 2017ko maiatzak 12, ostirala.  10:00 - 14:00

 Subijana Etxea, Villabona (Gipuzkoa)

 Sarrera doan. Izena ematea, maiatzaren 10era arte  
[xenpelar@bertsozale.eus](mailto:xenpelar@bertsozale.eus)

Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak dokumentazio alorraren inguruko eta, bereziki, Euskal Herriko dokumentazio gaien inguruko gogoetak bultzatu eta ezagutarazteko helburuarekin sortu ziren. Laugarren edizio hau herrietako ezagutza bildu eta geroratzeko egitasmoek sortzen duten ikus-entzunezko ondarearen inguruan antolatu da, zehazki bideo grabazioen eta euskarri digitalen inguruko esperientziak partekatzeko.

Aniztasun handia dago herri bilketa sustatzen duten eragileen artean: herriko elkarteek, udalek, eta herri liburutegiek edo artxiboek sustatutako ekimenak izan ohi dira, tokiko bilduma aberaste aldera. Herri eragile hauek bideoen tratamendu eta zaintzaren inguruan izandako esperientziak eta kezak plazaratuko dira jardunaldiotan.

Jardunaldi hau ikus-entzunezko ondarearen bilketa eta tratamenduan lan egiten duten eragile eta herritar guztientzat irekita dago, eta batez ere, bideo grabazioekin lanean hasi eta nola egin jakin nahi duten herrietako eragile, liburuzain, artxibozain eta langileei zuzenduta dago.

### Antolatzaileak

2017ko Xenpelar Dokumentazio Jardunaldien antolatzaileak Mintzola Ahozko Lantegia, Euskal Herriko Ahotsak eta Koldo Mitxelena Liburutegia dira. Artxibategi, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalen Euskal Elkarteak (ALDEE) eta Amasa-Villabonako Udal Liburutegiak lagundu dute jardunaldien berri zabaltzen.

Antolatzaileak:



ahotsak.eus



Laguntzaileak:



## Egitaraua

- 10:00 Ikus-entzunezko ondarearen tratamendu dokumentala**  
Nere Erkiaga. Xenpelar Dokumentazio Zentroa  
Bideo grabazioak egoki gorde eta herritarren eskura jartzeko hainbat gai tekniko hartu behar dira kontuan. Mota horietako bilduma artxiboan edo liburutegian jasotzen denean egin beharreko gutxieneko tratamendua azalduko da.
- 10:20 Ekitaldien grabazioak nola egin: oinarrizko oharrak**  
Eneritz Urkola. Bertsoa.eus  
Bertso ekitaldien grabazioak adibide hartuta, areto barneko eta kanpoko grabazioak egitean kontutan hartu beharreko oharrak eskainiko dira.
- 10:35 Elkarrizketen grabazioak nola egin: oinarrizko oharrak**  
Idoia Etxeberria. Ahotsak.eus  
Etxean edo barnealdean elkarrizketak egiteko kontuan hartu beharreko oharrak eskainiko dira.
- 10:50 Bideo fitxategien oinarrizko edizioa eta internet publikazioa**  
Haizea Odria. Ahotsak.eus  
Eskura dauden programak eta baliabideak erabiliaz bideo fitxategiak editatzeko oinarrizko azalpenak emango dira. Interneten publikatzeko dauden baliabideen azalpena ere eskainiko da.

## Atsedena

- 12:00 Amarauna Lekukoak: auzoko bizilagunen bideo grabaketak liburutegiko tokiko bilduman**  
Larraitx Idarreta. Ernest Lluch Kultur Etxeko Liburutegia (Donostia)  
Amarauna Donostiako Amara auzoko tokiko bilduma da, udal liburutegiak osatutakoa. Hainbat dokumentu-bilketa eragin dute, tartean, herritarrei egindako bideo elkarrizketak.
- 12:20 Oiartzuarren baitan: herri hizkeraren bilketa bideo elkarrizketen bidez**  
Ane Lardi, Ttur Ttur Euskaltzaleon Bilgunea (Oiartzun) eta Idoia Etxeberria, Ahotsak.eus  
*Oiartzuarren baitan* Oiartzungo ahozko ondarearen ataria da eta Oiartzungo hizkerari buruzko hainbat baliabide eskaintzen ditu. Tartean, herritarren elkarrizketak bildu dituzte, memoria kolektiboa ere biltzeko asmoz. Ahotsak egitasmoak laguntza teknikoa eskaini die atal honetan.
- 12:40 Durango 1936: gerrako memoria kolektiboa eta omenaldia bideoen bidez**  
Unai Iturriaga eta Andoni Bareña. Durango 1936 Elkartea  
Faxismoari aurre egin zioten Durangaldeko herritarrei omenaldia egiteko helburuarekin sortu zen Durango 1936 Kultur Elkartea. Hainbat lanen artean, lekukoen bideo elkarrizketak abiatu dituzte eta interneten publikatzeko ataria ere sortu dute.
- 13:10 Aldudarrak Batasuna: 1986ko lehen bideokameratik, herri telebistara**  
Ihintza Bidart. Aldudarrak Batasuna elkarte  
Aldudeko kultur elkarteak aspaldi hasi zen herriko ekintzak bideoz grabatzen. 1997an hurbileko telebista proiektu bat abiatu zuten Aldudarrak Bideo Interes Kolektiboko Kooperatiba sortuz, eta hortik, Kanaldude internet telebista.
- 13:30 Iritzi trukea**

\*Hitzaldien ondoren, bazkaritarako aukera egongo da